

Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 196/2024 FORU AGINDUA, ekainaren 5koa, zeinaren bidez onesten baitira, 2023ko urtarrilaren 1ean hasitako zergaldietarako, 200 eta 220 ereduak, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga (establezimendu iraunkorrei eta, atzerrian eratuak izanik eta Bizkaian presentzia edukita, errentak esleitzeko araubidean dauden entitateei dagokiena) autolikidatzeko erabili beharrekoak, eta arautzen baita eredu horiek telematikoki aurkezteko prozedura. (BAO Ekainaren 13koa)

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 126. eta 127. artikuluetan eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 12/2013 Foru Arauaren 21. artikuluan ezarri denaren arabera, zergadunek zerga horien autolikidazioa aurkeztu behar dute eta dagokien zerga-zorra sartu beharko dute Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehaztuko dituen eran eta tokian.

Orain onartzen diren ereduak aurreko ekitaldiko autolikidazioen edukien egitura bera errepikatzen dute. Hala ere, izaera teknikoko eta eguneratze hutseko aldaketa batzuk sartzen dira, baita garrantzi handiagoko beste batzuk ere, 2023an zehar Sozietateen gaineko Zergan ezarritako berrikuntzetara egokitzeko.

Ondoren zehaztuko dira 200 eta 220 ereduetan zuzenean eragina duten aldaketa nabarmenenak.

Kultura sustatzeko zerga-pizgarriak eguneratu eta zabaltzen dituen azaroaren 23ko 9/2022 Foru Arauak, aplikagarriak zaizkion pizgarri fiskalak nabarmen hobetuz ikus-entzunezko lanen ekoizpenetan inbertsioak eta gastuak sustatzeko helburu nagusiarekin, 66 quater eta 66 quinquies artikuluko berriak sartu ditu Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan. Artikulu horiek foru arau horren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako kenkaria ordeztuko duten zerga-pizgarriak arautzen dituzte.

66 quater artikuluari dagokionez, Bat apartatuan ikus-entzunezko lanen ekoizpenetan egindako inbertsio eta gastuengatik aplikatu beharreko kenkaria jasotzen da. Kenkariaren oinarrian ekoizpenaren kostuak, kopiak lortzeko gastuak eta ekoizlearen konturako publizitate zein sustapen gastuak sartuko dira. Kenkari hori ekoizle exekutiboak aplikatu ahal izango du soilik baldin eta ikus-entzunezko lanaren ekoizlea Espainiako lurraldean bizi ez bada eta lurralde horretan kokapen iraunkorrean jarduten ez badu; kasu horretan, kenkari-oinarria azken horrek jasandako produkzioaren kostuak osatuko du soil-soilik.

Aplikatu beharreko kenkariaren ehunekoari dagokionez, %60 eta %35 artekoa izango da, inbertsio eta gastu horien guztizko zenbatekoari dagokionez zergadunak zerga egoitza duen Lurralde Historikoan egindako kenkariaren oinarria osatzen duten gastuen eta inbertsioen zenbatekoaren ehunekoaren arabera. Euskara hutsean egindako lanen kasuan, portzentajezko 10 puntu igoko da aplikatu beharreko ehunekoak.

Ondoren, Bi apartatuak arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunengatik kenkaria jasotzen du. Horrek kuota likidoan %30eko kenkaria aplikatzeko eskubidea arautzen du arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen ekoizpenean eta erakustaldian egindako

gastuen zenbatekoan. Kenkari hori %40ra arte igoko da ikuskizuna euskaraz denean, eta ezingo da 1.000.000 eurotik gorakoa izan zergaldi bakoitzeko.

Liburuak argitaratzeagatiko kenkariari dagokionez (66 quater artikulua Hiru apartatua arautua), %5eko kenkaria ezartzen da kuota likidoan, serieko industria-ekoizpena gauzatu aurretik euskarri fisikoa egitea ahalbidetzen duten liburuen argitalpenean egindako inbertsioengatik.

66 quinquies artikulua, bestalde, kenkari berri bat jasotzen du, eta kenkari horren konfigurazioa ikerketa- eta garapen-proiektuetan edo berrikuntza teknologikoan parte hartzeagatiko kenkariaren antzekoa da.

Kenkari hori Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 64 bis artikuluan jasotzen da gaur egun. Kenkari hori aplikatu ahalko dute arte eszenikoen eta musikalen ikus-entzunezko obren eta zuzeneko ikuskizunen finantzaketan parte hartzen duten zergadunek. Horretarako, 66 quater artikulua berriko Bat eta Bi apartatuetako kenkariak aplikatzeko baldintzak bete beharko dituzte, eta ezingo da aplikatu finantzatzailearekin lotura dagoen kasuetan. Aplikatzea bateraezina izango da, osorik edo zati batean, aipatutako 66 quater artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz zergadun horiek jaso ditzaketen kenkariekin.

Aipagarriak eta azpimarratzeko modukoak dira, halaber, alde batetik, zergadunaren kuota likidoaren % 50eko muga duten kenkariaren artean Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren aipatutako 66 quater artikuluko kultura sustatzeko pizgarria sartzeko egindako aldaketak, eta, bestetik, aurreko legeriaren arabera sortutako eta oraindik aplikatzeko zeuden kultura-kenkariak aplikatzeko modua argitzeko aldaketak. Azken kasu horretan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 29. xedapen iragankor berria sartu da film luze zinematografikoen eta fikziozko, animazioko edo dokumentaleko ikus-entzunezko serieen Espainiako ekoizpenetan egindako inbertsioengatik kenkariak dituzten zergadunek, 2023ko urtarrilaren 1ean aplikatzeke daudenak, dagokion kenkaria aplikatuko dute Kultura sustatzeko zerga-pizgarriak eguneratu eta zabaltzen dituen azaroaren 23ko 9/2022 Foru Arauak sartutako aldaketek ondorioak izan baino lehen zerga-pizgarri hau arautzen zuen hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako terminoetan.

Hori dela eta, foru-agindu honen xedea da Sozietateen gaineko Zergaren (Bizkaiko Lurralde Historikoan ari diren atzerrian eraturako errentak eratzitzeko araubideko erakundeak) eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorrek) autolikidazioa aurkezteko eredu berriak onartzea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietarako, zergadunek beren tributu-betebeharrak betetzea erraztearren.

Hori dela bide, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.i) artikulua emandako gaikuntza erabilita, honako hau,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. Sozietateen gaineko Zergaren (Bizkaiko Lurralde Historikoan ari diren atzerrian eraturako errentak eratzitzeko araubideko erakundeak) eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorrek) autolikidazioa aurkezteko 200 eta 220 ereduak onartzea.

Bat. Sozietateen gaineko Zergaren (Bizkaiko Lurralde Historikoan ari diren atzerrian eraturako errentak eratzitzeko araubideko erakundeak) eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorrek) autolikidazioa aurkezteko 200 eredu onetsi da, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietarako. Foru-agindu honen I. eranskin gisa erantsi da.

Bi. 220 eredu onetsi da, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren VI. tituluko VI. kapituluaren ezarritako araubide bereziaren arabera tributatzeko duten talde fiskalek 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietako autolikidazioa aurkezteko. Foru-agindu honen II. eranskin gisa erantsi da.

2. artikulua. 200 eta 220 ereduak telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak.

Bat. Aurkezpenaren izaera

1. 200 ereduari dagozkion autolikidazioak nahitaez aurkeztu behar dira telematikoki, aurkezpena Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo da.
2. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren VI. tituluko VI. kapituluaren ezarritako araubide bereziaren arabera tributatzen duten talde fiskalek aurkeztu beharreko 220 ereduari dagozkion autolikidazioak nahitaez aurkeztu behar dira telematikoki; aurkezpena Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo da.
3. Erakunde batzuek Sozietateen gaineko Zerga Bizkaiko Lurralde Historikokoan ordaintzen dute, eragiketa-bolumenaren arabera, eta Arabako Lurralde Historikoko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko edo lurralde erkidegoko arautegia aplikatuta. Erakunde horien kasuan, autolikidazioa Arabako Foru Ogasunak, Gipuzkoako Foru Ogasunak edo Zerga Administrazioeko Estatuko Agentziak garatutako baliabide informatikoen bidez egin behar da, hurrenez hurren. Gero, lortutako autolikidazioa Bizkaiko Foru Ogasunari bidali behar diote, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez; aurretik, fitxategiak bihurtzeko programa erabiliko da, zeina Aldundiaren web-orrian eskuragarri baitago.

Bi. Autolikidaziorako 200 eta 220 ereduak telematikoki aurkeztea.

Autolikidazioaren aurkezpen telematikoa Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo da, eta baldintza hauek bete beharko ditu:

1. Sarbidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren eta atariaren bidez egingo da, informaziorako sarbidean eta jardueren izapideetan segurtasun-berme guztiak egonda.
2. Aitortzaileak edo, hala badagokio, pertsona edo entitate ordezkariak bere burua identifikatzeko, egoitza elektronikoan horretarako dauden sistemak erabili beharko ditu, uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onartutako Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudian ezarritakoarekin bat, ondoren, «Sozietateen aurkezpena» hautatu, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan adierazitako izapidetze-jarraibideei jarraitu beharko die.
3. Autolikidaziorako 200 eta 220 ereduak telematikoki aurkezteko, aitortzaileak edo, hala badagokio, pertsona edo entitate ordezkariak fitxategia sortu beharko du bidali beharreko autolikidazioarekin, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak prestatutako programak erabilita. Programek fitxategi bat sortuko dute likidazio bakoitzeko. Hala ere, baimendutako aurkezleek autolikidazio bat baino gehiago aurkeztu ahal izango dute batera; horretarako, aitorten anitzeko fitxategiak sortu behar dituzte (gehienez 25 aitorten bidalketako), Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko laguntza-programen orriko «Masiboen moduluak » atalean deskargatzeko erabilgarri dagoen berariazko programaz baliatuta.
4. Bidalitako autolikidazioari dagokion aitortzaileak egoitza elektronikora sartu den erabiltzailea izan behar du. Autolikidazioa aurkezle baimenduak aurkezten badu, ordezkatzeko dituenetako bat izan behar du, foru-agindu honen 5. artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

Hiru. Akats formalak dituzten autolikidazioak aurkeztea.

Telematikoki autolikidazioak betetzean akats formalik egonez gero, inguruabar horren berri emango zaio aitortzaileari, sistema bera erabiliz: akats-mezuak bidaliko zaizkio, akatsok konpon ditzan.

3. artikulua. Aurkezteko epea.

Sozietateen gaineko Zergaren (Bizkaiko Lurralde Historikoan ari diren atzerrian eraturako errentak eratzikitzeko araubideko erakundeak) eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorrak) 2022ko urtarilaren 1etik hasitako zergaldietako autolikidazioak (positiboak, negatiboak zein itzulketarako eskubidea dakartenak) zergaldia amaitu osteko sei hilabeteen ondorengo hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztu beharko dira, eta, dirukopururen bat sartu behar bada, epe horretan sartu beharko da ere. Hala ere, epe horren hasieran Ogasun eta Finantzen foru diputatuak ez badu zehaztu autolikidazioa aurkezteko era, orduan, autolikidazioa aurkezteko modua zehazten duen xedapena indarrean jarri osteko hogeita bost egun naturaleko epearen barruan aurkeztu beharko da autolikidazioa.

4. artikulua. Dokumentazioa.

Bat. Zergadunek agiri hauek bidali behar dizkiote Foru Ogasunari autolikidazioarekin batera:

- a) Erakundearen administrazio kontseiluko edo kontseilu artezkariko idazkariaren ziurtagiria, honako hau egiaztatzeko: aitortutako ekitaldia itxi denean erakundearen kapitallean %5eko zuzeneko partaidetza edo handiagoa izan duten pertsona fisiko eta erakunde guztiak agertzen direla aitortzailearen bazkideen/partaideen zerrendan. Edo, bigarren mailako merkatu antolatu batean kotizatzen duten baloreen kasuan, %1ekoa edo handiagoa duten guztiak agertzen direla. Kapital Sozietateei buruzko Legea eta Euskadiko Kooperatiben Legea aplikatu behar ez duten erakundeek ez dute ziurtagiri hori aurkeztu behar. Halaber, ez da ziurtagiri hori aurkeztu behar sozietatearen kapitalaren %95 baino gehiago duten titularrak adierazten badira, edo, bigarren mailako merkatu antolatu batean kotizatzen duten baloreen kasuan, %99 baino gehiago dutenak adierazten badira.
- b) Aurkeztutako autolikidazioan zerga-oinarria murrizten bada Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 24. artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz —merkataritza-funts finantzarioa—, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 8. artikuluan adierazitako informazioa aurkeztu beharko da; erregelamendu hori abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onartu zen.
- c) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 36. artikuluan aipatzen den berrinbertsioaren ondoriozko salbuespena erabiltzen duten inbertsioak frogatzen dituzten fakturen kopiak.
- d) Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 41. artikuluan 2. zenbakian xedatutakoaren arabera errentak egozteko araubideko erakundeak emandako ziurtagiria.
- e) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 53. artikuluan aipatzen den ekintzailatza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera sendotzeko erreserba berezia gauzatzeko egindako inbertsioak frogatzen dituzten fakturen kopiak, eta faktura horien zerrenda, non adieraziko baitira nor den hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eta haietako bakoitza zer kontabilitate-partidatan kontabilizatu den.
- f) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 60 bis artikuluan portu-agintarientzat ezarritako kenkaria aplikatzen duten inbertsio eta gastuak frogatzen dituzten fakturen zerrenda, faktura bakoitzak datu hauek zehaztuta dituela: hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eta bakoitzari dagokion kontabilitateko partida.
- g) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 61. artikuluan ezarritako kenkaria aplikatzen duten inbertsioak frogatzen dituzten fakturen kopiak, eta faktura horien zerrenda, faktura bakoitzak datu hauek zehaztuta dituela: hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eta bakoitzari dagokion kontabilitateko partida. Oro bat, adierazi beharko da aktibo berriak diren, zeinek 100eko 10eko kenkaria

egiteko eskubidea ematen baitute, edo errentatutako ondasunen gaineko hobekuntzak edo inbertsioak diren, zeinek 100eko 5eko kenkaria egiteko eskubidea ematen baitute.

- h) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 62. eta 63. artikuluetan xedatutakoaren arabera, ikerketa- eta garapen-jarduerengatiko eta berrikuntza teknologikoko jarduerengatiko kenkaria aplikatzen bada, arlo horretako eskumena daukan Eusko Jaurlaritzako edo Bizkaiko Foru Aldundiko sailak edo haiei atxikitako erakunde edo entitate batek egindako txosten arrazoituaren kopia aurkeztu behar da, 11/2013 Foru Arauaren 64. artikuluan eta abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 35. eta 36. artikuluetan xedatu takoarekin bat etorriz. Edo, bestela, foru-arau horren 62. eta 63. artikuluen 2. zenbakian, zergadunaren jarduerak ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikotzat jotzeko eskatzen diren baldintza zientifiko eta teknologikoak betetzen direla frogatzen duen bestelako edozein agiri, lehen aipatutako 64. artikulua 1. zenbakian ezarritakoa kontuan hartuta. Edonola ere, jarduera horiei egotzitako gastuen eta inbertsioen zenbatekoak zehaztu behar dira.
- i) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 66. artikuluan aipatzen den enpleguaren sorkuntzagatiko kenkaria aplikatzen bada, autolikidazioaren epealdian eta aurrekoan enpresaren plantillan lan-kontratu mugagabea izan duten langileen alden eta baje zerrenda. Datu hauek zehaztu behar dira: kontratu mugagabearen data, bajaren data (halakorik egon bada), kontratu mota, lanaldiaren iraupena eta, lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetako batean sartuta dauden pertsonen kasuan, zergatik dauden sartuta halako talde batean. Horrez gainera, kenkaria sortzen duten langileen urteko soldata gordina adierazi behar da.
- j) Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 66.bis artikuluan ezarritako kenkaria sortzen denean mikroenpresetan, enpresa txikietan edo ertainetan inbertitzeagatik, hau da, 66.bis artikuluko 6. atalean aipatutako ziurtagiria. Ziurtagiri horretan akzioak edo partaidetzak harpidetzearen edo eskuratzearen xede izan den erakundeak honako hauek utzi behar dituzte jasota: bere identifikazio-datuak; ekitaldi horretan benetan ordaindutako 2023ko ekitaldian erositako edo harpidetutako akzioen edo partaidetzen eskuratze-balioa; erosketak horrek adierazten duen Funts Propioen ehunekoa; eskuratze-data; eta erantzukizunez betetzen dituela aitortzen duen kenkariaren atala.
- k) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 66ter artikuluan aurreikusitako prestakuntza-gastuengatiko kenkaria sortzen denean, kanpoko prestakuntza bada, kenkariari atxikitako gastuen fakturen kopia aurkeztu behar da, bai eta faktura horien zerrenda ere, faktura bakoitza kontabilizatu den hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eta kontabilitateko partida adierazita. Prestakuntza baliabide propioekin garatzen bada, memoria bat aurkeztu behar da, egindako prestakuntzaren eta gastuen kalkularen xehetasunekin.
- l) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 66 quater Bat artikuluan ezarritako ikus-entzunezko ekoizpenengatiko kenkaria sortzen denean, Zinematografiako eta Ikus-entzunezko Arteetako Institutuak, Euskal Autonomia Erkidegoko dagokion organismoak, gai horretan eskumena duenak, foru aldundian kulturaren arloko eskumena duen sailak edo Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batean kokatutako organismo baliokide batek jaulkitako ziurtagiria, horren edukiari, kultura- errealitatearekin duen loturari edo kultura-aniztasuna aberasteko egindako ekarpenari dagokionez kultura-izaera duela egiaztatzen duena, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 38 quinquies artikuluan ezarritakoarekin bat.
- m) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 66 quater artikuluan ezarritako kenkarietako bat sortzen denean, kenkari horiei atxikitako inbertsioak eta gastuak egiaztatzen dituzten fakturen zerrenda; faktura horietan honako

hauek adieraziko dira: hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eta horietako bakoitza kontabilizatu den kontabilitate-partida.

- n) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 66 quater Bi artikuluan ezarritako kenkaria sortzen denean, horren kultura-izaera egiaztatzen duen ziurtagiria, eta baita ikuskizuna benetan egin dela egiaztatzen duena ere, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 38 quinquies artikuluan ezarritakoarekin bat.
- ñ) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 66 quinquies artikuluan ezarritako kenkaria sortzen denean, ikus-entzunezko lanen eta arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunaren finantzaketan parte hartzeagatik, ikus-entzunezko lanaren edo zuzeneko ikuskizunaren izaera kulturala egiaztatzen duen ziurtagiria, edo, oraindik eman ez badira, eskaera egiaztatzen duen dokumentazioa, kenkaria aplikatzeko den azken zergaldiari dagokion aitopenearekin batera, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 38 quinquies artikuluan ezarritakoarekin bat.
- o) Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 25. xedapen iragankorrean ezarritako kenkaria –Batuz kenkaria– aplikatzen duten inbertsio eta gastuak frogatzen dituzten fakturen kopiak, eta faktura horien zerrenda, faktura bakoitzak datu hauek zehaztuta dituela: hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eta bakoitzari dagokion kontabilitateko partida.
- p) Irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko martxoaren 20ko 4/2019 Foru Araua aplikatzen duten irabazteko asmorik gabeko entitateek urtero egin behar duten memoria ekonomikoa aurkeztu behar dute, autolikidazioarekin batera, eta, memoria horretan, Irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga-araubidea eta mezenasgorako zerga-pizgarriak aplikatzeko Erregelamenduaren 4. artikuluan (55/2019 Foru Dekretua, maiatzaren 21ekoa) ezarritako informazioa jasoko dute, salbu eta entitateak sarrera-bolumen txikia izateagatik betebeharrak horretatik salbuetsita daudenean 4. artikuluko horren 2. apartatuan araututakoaren arabera.

Bi. Aurreko zenbakian ezarritakoa gorabehera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren VI. tituluko VI. kapituluan ezarritako araubidearen arabera tributatzen duten talde fiskalen kasuan, aipatutako foru-arau horren 83. artikuluan xedatutakoaren arabera, taldeko sozietate bakoitzak, bai eta taldeko sozietate nagusiak edo taldeko buru denak ere, egin beharreko autolikidazioak 200 ereduan aurkeztuko dira eta eredia oso-osorik bete beharko da.

Halaber, autolikidazioak Bizkaiko Lurralde Historikoan aurkeztu behar ez direnean, taldearen ordezkari diren entitateek, 220 ereduarekin batera, aurreko lerroaldean aipatzen den banakako tributazio araubidean taldeko sozietate bakoitzak egindako autolikidazioen kopia bat aurkeztuko dute, taldearen ordezkaria den entitatearen autolikidazioaren kopia barne.

Hiru. Autolikidazioari nahitaez erantsi beharreko agiriak hamabost eguneko epean helarazi behar zaizkio Ogasun eta Finantza Sailari, autolikidazioa aurkezten denetik aurrera zenbatzen hasita. Agiri horiek telematikoki aurkeztu beharko dira, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, azal ofizialaren kopia batekin batera.

Lau. Zerga Administrazioak beste administrazio edo erakunde ofizial batzuei bidali ahal izango dizkie autolikidazioarekin batera edo autolikidazioa eta gero aurkeztutako agiriak, txostena egin dezaten, agiri horiek zergapekoak aitortutako partidaren bat frogatzen badute. Foru agindu honetan ezarritako epean erakundeak ez badu aurkezten eskatutako agiriren bat, erakundeari egotzi ahal zaion arrazoi batengatik, kenkarirako eskubidea frogatu beharra ez betetzat joko da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 103. artikuluan ezarritakoaren arabera.

5. artikulua. Lankidetzaz-hitzarmen edo akordioak.

Bat. Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 21eko 112/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Bizkaiko Lurralde Historikoko zergen kudeaketari buruzko Araudian xedatutakoarekin bat etorriz, Ogasun eta Finantza Sailak lankidetzaz-hitzarmen edo -akordioen bidez baimena emango die erakunde edo elkarte aintzatetsi batzuei euren bazkide edo kide diren profesionalek autolikidaziorako 200 eta 220 ereduak bide telematikoen bitartez aurkezteko, beste batzuen izenean.

Bi. Aurreko zenbakian aipatutako profesionalek kasuan-kasuan behar den ordezkari izan behar dute beste zergadun batzuen 200 eta 220 ereduaren autolikidazioak telematikoki aurkezteko.

Profesional horiek, gainera, Ogasun eta Finantza Sailak eskatzen dien guztietan frogatu behar dute euren ordezkari izan behar den lankidetzaz-hitzarmen edo -akordioan ezarri bezala.

6. artikulua. Ordainbideak.

Bat. Itzultzeko diren autolikidazioetan, nahitaezkoa izango da banku-helbideratzea. Gainera, aukera hori ezeztatzina izango da, eta baldintza hauek bete behar ditu:

1. Bizkaiko Foru Ogasunak jakin behar du nor den IBAN kodearen titularra.
2. IBAN kodearen titularra aurkeztutako autolikidazioaren aitortzailea izan behar da.

Autolikidazioaren emaitza dirua ordaindu beharra bada, berriz, zergadunak banku-helbideratzearen bidez edo ordainketa-gutunaren bidez egin ahal izango du ordainketa.

Autolikidazioaren emaitza dirua ordaindu beharra bada eta banku-helbideratzearen bidez ordaintzea aukeratu bada, Bat zenbakian adierazitako bi baldintzez gainera, hautatutako finantza-erakundea Bizkaiko Foru Ogasunaren zerga-bilketako laguntzailea izan behar da.

Bi. Aurreko zenbakian xedatutakoa gorabehera, ordainketa Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa erabilgarri dauden gainerako bitartekoen bidez egin ahal izango da.

AZKEN XEDAPENA

Azken Xedapen Bakarra. Indarrean sartzea.

Foru-agindu hau 2024ko ekainaren 30ean jarriko da indarrean.

1. ERANSKINA

[Eredua 200](#)

2. ERANSKINA

[Eredua 220](#)